

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
27/2012	R12/2013	2013/06/28	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Artxibatzea, gatazkarik ez egoteagatik

Ebazpena: R 12/2013

Espedientea: 27/2012

Gasteizen, 2013ko ekainaren 28an

Euskadiko Autonomia Erkidegoarekin izenpetutako Ekonomi Ituneko Arbitraje Batzordeak, Carlos Palao Taboada presidentek eta Isaac Merino Jara eta Francisco Javier Muguruza Arrese batzordekideek osatuak, honako

## **ERABAKIA**

hartu du Zerga Administrazioko Estatu Agentziak Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurka aurkeztutako gatazkan, ENTITATEA 1 zergapekoaren helbide tributarioari dagokionez. Gatazka hori 27/2012 espediente zenbakiaz tramitatzen ari da Arbitraje Batzorde honetan.

## **I. AURREKARIAK**

1. 2012ko abuztuaren 22an aurkeztutako idatziaren bitartez planteatu zuen Zerga Administrazioko Estatu Agentziak gatazka hau, Arbitraje Batzorde honetan abuztuaren 27an erregistratu zena.

Idatzi horretan adierazten denez, 2012ko maiatzaren 22an AEATk, Ekonomia Ituneko 43.bederatzi artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, ENTITATEA 1 zergapekoaren zerga helbidea Donostiatik (Gipuzkoa) Valladolidera aldatzeko proposamena jakinarazi zion Gipuzkoako Foru Aldundiari. Aldaketak 2010eko azaroaren 4tik aurrera izango zituen ondorioak.

Ekonomia Ituneko 43.9 artikuluan aipatzen den bi hilabeteko epea behin igaro ondoren, Gipuzkoako Foru Aldundiak ez zion erantzunik eman AEATk egindako

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
27/2012	R12/2013	2013/06/28	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Artxibatzea, gatazkarik ez egoteagatik

proposamenari. Hori dela-eta, AEATk ulertu zuen Gipuzkoako Foru Aldundia ez zegoela ados proposatutako helbide aldaketarekin, eta gatazka aurkeztu zion Batzorde honi, Arbitraje Batzordearen Erregelamenduak 13. artikuluan xedatzen duenari jarraikiz.

2. 2012ko urriaren 16an, Gipuzkoako Foru Aldundiko aktuarioak (IZEN-ABIZENAK) honela ondorioztatu zuen berak egin eta 3. Unitate Eragileko buruak ontzat emandako txostenean: "ENTITATE 1 sozietateak ez du inolako establezimendurik Gipuzkoan, eta ez du jarduera ekonomikorik egiten lurralde horretan. Hortaz, proposatzen da onartzea Zerga Administrazioko Estatu Agentziak, EAEko Ordezkaritza Bereziaren Erakunde Harremanetarako Eskualdeko Bulegoaren bitartez, egindako proposamena, eta sustatzea ebatzi dadila helbide aldaketa Gipuzkoatik Valladolidera, 2010/11/04tik aurrerako ondorioekin, hain zuzen ere helbide soziala Valladolidetik Gipuzkoara aldatu zen datatik aurrera".

Txosten hori aintzat harturik, 2012ko urriaren 29an Gipuzkoako Foru Aldundiko Ikuskaritzako zuzendariorde nagusiak erabaki zuen "zerga helbidearen aldaketa onartzea proposatutako datatik aurrerako ondoriekin."

3. Gipuzkoako Foru Aldundiko aktuarioaren txostena eta Ikuskaritzako zuzendariorde nagusiaren erabakia Arbitraje Batzordeak gatazka onartu aurretik eta alegazioak aurkezteko aukera Gipuzkoako Foru Aldundiari eman aurretik bidali dizkio AEATk Batzorde honi. Hori dela-eta, Gipuzkoako Foru Aldundiak ezin izan du planteatu Estatuko Administrazioak atzera egin dezala formalki gatazkan.

Guztiarekin ere, Arbitraje Batzorde honek modu sinesgarrian badakienez AEATk planteatutako uzi guztiak Gipuzkoako Foru Aldundiak onartu dituela, eta azken batean horrek gatazka desagertzea dakarrenez, Arbitraje Batzordeak ez dauka zer adierazirik gaiaren inguruan.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
27/2012	R12/2013	2013/06/28	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Artxibatzea, gatazkarik ez egoteagatik

Horrenbestez, Arbitraje Batzordeak

## ERABAKITZEN DU

Agintzea jarduketak amaitu eta artxibatu daitezela, eta bidalitako dokumentazio guztia atzera itzuli dadila.